

Formol Laborategia Antzerki Elkarteak

Erregistro zk.: AS/G/23102/2020
Eraketa-data: 20/02/2020
Inskripzio-data: 28/02/2020
Helbidea: Geltoki Kalea 25, 3º C
Udalerrria: Lasarte-Oria
PK: 20160
Lurraldea: Gipuzkoa

Sailkapena: Kultura Orokorrekoak
Xedea: Antzerkizaleenak

-Euskarazko sorkuntza eszenikoak sortzea, euskal kulturaren eraginez: Euskal kulturaren gure ekarpena eginez, gugandik eta guretzako, euskaraz sortzea. Denbora-pasa edo entretenimendu soiletik urrunduz, kultura eta artearen kalitatez zuzendu nahi ditugun sorkuntza prozesuak eta pieza eszenikoak jarri nahi ditugu martxan. -Arte eszenikoen bidez, bereziki antzerkiaren bidez, ildo artistiko berriak esploratzea eta eskaintzea: Elkarteak, sorkuntza artistikorako laborategi izaera hartzea nahi dugu. Eta honela, adierazpide eta molde artistiko berriak ikertu eta euskal antzerkigintzaren panoramari eskaintzea litzateke helburu. -Publiko gaztea antzerkira erakartzea: Gazteak, eurenak ere badiren antzoki, kultur etxe, museo eta beste edozein espazioetara erakarri nahi ditugu, antzezlan baten parean egotea gazteentzako kultur aukera bat ere badela sustatuz. Belaunaldi berriek haien burua antzezlanetan parte hartzen ikusteak kulturaren biziraupena, kalitatea, sorkuntza berriak eta lana bermatuko duelakoan gaude. Gure kasuan, arte eszenikoen jarraipen eta biziraupenerako beharrezkotzat hartzen dugu publiko gazteari zuzentzea. -Gazteon belaunalditik hitz eginez, pentsamenduak astintzea: Sormen lanen bitartez, euskal gizarteari begira gaudenon pentsamendu, sentimendu eta akzioak ikertu nahi ditugu, bai gizartearen, bai kulturaren parte garen bitartean. Gure belaunaldiari zintzoki eta aurrez aurre hitz eginez hausnartzera bultzatu, baita elkarriketa orokorrako batera batu eta beste belaunaldiei galderak eta erantzunak luzatu.



Erregistroan egun jasota dauden datuak 2020/11/27

Erregistroko datuen argitalpen hau informazioa emateko baino ez da